

ESKUALDUNEN SORTERRIKO KANTUA**DONIBANEKO FESTETAN**

Eskualdunak nor eta zer garen
Arrotzak bea dagozi:
Gu Sem Noeren leen semearen
Leinutik ginen berechi;
Gure gain eta nausi,
Libre bear ginela bizi;
Bertze mintzorik ez ginuen
Eskuara beizik ikasi,
Egundaino ez ginuen leen
Arrotz legerik onetsi.

Anbat iri, ibai eta mendi
Eskuarazko izenekin
Aipatzen ziren Asian aspaldi:
Aipa dire orai berdin.
Nai ginuke jakin,
Nola ango izen berekin,
Ibero bat emen ain andi
Eskualdunek zuten egin;
Dakiena mintza baladi,
Ainitz ginuke atsegin.

Uolde osoaren urteaz
Eskualduna oroit zeno,

Jainko bakarraren ezagutzeaz
Argitua zen oraino;
Denbora baitzen lano,
Gal bidez egin zen pagano.
Autexiak Salbatzaileaz
Leenago zenbeit baino,
Santiago gutarat eltzeaz
Egin ginen Girichtino.

Basa-jendez zelaiak gandirik
Jin ginen mendi autara;
Gero berritz Moroak etorririk
Niork ez zetzazken bara.
Eien kontra gerlara
Noiz nai jausten ginen bada.
Sei mendez ola jazarririk
Atera ginen Nabarra.
Moroak guk antchet errautsirik...
Probetchua bertzetara!

Eskualdunak bereziki orai
Fedea gagozka chutik.
Jainkoaren beldurra badugu bai;
Gizonenik ez anbatik.
Jainkoa da goratik,
Gure nausi egundainotik:
Guri manatzeko ez da gai
Jainko gabeko puchantik.
Nor dukegun anai edo etsai
Aal dakigu engoitik.

Lapurdi, Bachenabar, Chubero,
Irur bagare Frantzian;
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarra,
Lau badire Espainian.
Zazpiak bat naian
Ginauden aspaldi andian.
Oi! zein liteken ederrago,

Baldin Eskualdun errian,
Eskualduna librerik balago
Bere zuzenen erdian!

Mundu guziko mintzaletarik
Orai jakingarriena,
Entzuten dugu jakintsunetarik:
«Ura da Eskualdunena».
Nor ote zen leena
Eskuaraz mintzatu zena?
Guk Eskuara dugu bakarrik
Gure mintzaia zuzena.
Dugun oora arrotz delarik
Eskuara maite duena.

Laurech, Bizitcho, Loiol, Tchaberri,
Ditugu gure Sainduak;
Beltzuntz Arispe ta Larramendi
Gure gizon aipatuak:
Erri autan sortuak,
Eskualdun ezin ukatuak.
Orai Antonio Abbadi,
Eskualdun guzizkartsuak.
Ez dadin gal, gure eskuarari
Edatzen ditu eskuak.

G. A. ZALDUBY.

